



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2019ko MAIATZA - 204 zenbakia

Ekainaren 8an jokatuko da Saran Euskal Herriko Eskolarteko finala

Herrialdeetako eskolartekoak jokatu ostean izango da Euskal Herrikoa. Bertsozale Elkartek eta Ikastolen Elkartek antolatzen dute ekimena, elkarlanean.

Sarako Trinketean jokatuko da aurten ere Euskal Herriko Eskolartekoaren bat-bateko finala, ekainaren 8an. Goizean izango da saioa, baina festak egun osoan zehar jarraituko du.

Finalean herrialde bakoitzetik bi bertsolari ariko dira kantuan, aurretik jokatuko diren herrialdeetako finaletatik sailkatuko direnak. Euskal Herriko finalistek sari ederrak jasoko dituzte: Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak, *Buruz Buru* bilduma eta hurrengo Gabonetan Ahots Baten egonaldiaren edizioan parte hartzeko aukera. Egonaldi horretan antzerkigintzatik, kantagintzatik zein literaturatik datozen beste euskal

gazteekin elkartzeko aukera izango dute bertsolari gazteek.

Sarako finala jokatu ostean, bazkaria egongo da Lur Berrin Iparra-Hegoaren eskutik. Txartelak www.bertsosarrerak.eus webgunean eskuratu ahal izango dira. Arratsaldean ere jarraituko du festak, emanaldi berezi batekin. Bestalde, Sarara joateko autobusak ere izango dira. Horien informazioa lortzeko jarri harremanetan zuen herrialdeko Bertsozale Elkarterekin.

Eskolartekoa Euskal Herriko Bertsozale Elkartek eta Ikastolen Elkartek antolatzen dute, elkarlanean.

Herrialdeetako finalak

Euskal Herriko finalaren aurretik, herrialdeetako eskolartekoak jokatzen dira. Gipuzkoan eta Nafarroan dagoeneko amaitu dituzte; Bertsularien Lagunak Elkartek maiatzaren 18an egingo du bere jaia, Hazparnen; Arabak gazteena maiatzaren 11n egin zuen Legutian, eta 25ean izango da umeena, Zigoitian; eta, Bizkaian ere, maiatzaren 25an izango da finala, Abadiñon.

**JOANES
ILLARREGI MARZOL**



Gabiria, 2019-04-27

Osinalde sariketako txapelduna

Doinua: Misiolari baten moduan

Seiko kokorra osatu dugu
ta gidaritzan liderra
bertso baten bat zuzena joan da
beste baten bat okerra
gutxienean saiatu gara
Gabirin ematen gerra
nahiz ta tarteka dardarka izan
eskuineko izterra
eskerrik asko guztiagatik
izan da plaza ederra
plazer handi bat ezagutzea
Gabirin bertso bunkerra.



Sarako trinketean jokatuko da aurten ere Euskal Herriko Eskolarteko finala. / XDZ

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkartea / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

UPV/EHUko Udako Ikastaroetan matrikulatzeko epea zabalik dago

Abuztuaren 22an eta 23an egingo da bertsoaritzari buruzko ikastaroa Donostian; Bertsozale Elkarteko bazkideek abantailak izango dituzte matrikulatzerakoan.

Euskal kulturari so. Bertsoaritzaren artikulazioak izenburua daruma Mintzola Ahozko Lantegiak aurtengo UPV/EHUko Uda Ikastaroetan antolatutako eskolak. Abuztuaren 22an eta 23an izango da, Donostiako Miramar Jauregian. Euskaraz kontsumitzen den kultura nolako den, nola transmititzen den euskal kultura edota bertsozalea nolako den aztertzen saiatuko gara ikastaroan.

Matrikula egiteko epea zabalik dago, eta Bertsozale Elkarteko bazkideek prezio erdian eman ahal izango dugu izena, maiatzaren azken astea baino lehen eginez gero.

Egun biko ikastaroa

Euskal kulturaren kontsumotik eta kultur sorkuntzaren transmisiotik abiatuta, bertsozaletasuna izango da hizpide lehen egunean; eta, bide hori eginda, bigarren egunean, bertsoaritzari inguruan egokitu zaizkion eraginak eta horietara nola moldatu den aztertuko dugu, izan rockari, 90eko bertsolari gazteei, emakumeen presentziari edota hiztun berriei dagokionez.

Josu Amezaga, Iratxe Retolaza eta Harkaitz Zubiri izango dira hizlari lehen egunean; eta Alberto Irazu, Jon Maia, Oihana Iguaran eta Miren Artetxe bigarrenean. Gainera, hitzaldi sorta biribiltzeko, bigarren jardunaldiko arratsaldean bertso saio feminista eskainiko dute Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal bertsolariak, Maite Berriozabal gidari dutela.

Egitaraua:

ABUZTUAK 22. EUSKAL KULTURA ETA BERTSOZALEAK

9:00-10:00	Euskal kulturaren kontsumoa. <i>Josu Amezaga</i>
10:00-11:00	Kutur sorkuntzaren transmisioa: ajeak eta erronkak. <i>Iratxe Retolaza</i>
11:00-11:30	Atsedenaldia
11:30-12:30	Egungo bertsozaletasunaren argazkiak. <i>Harkaitz Zubiri</i>
12:30-13:30	Mahai-ingurua: Euskal kulturaren erronkak. <i>Josu Amezaga, Iratxe Retolaza, Harkaitz Zubiri.</i> <i>Gidaria: Karlos Aizpura</i>

ABUZTUAK 23. BERTSOLARITZAREN ARTIKULAZIOAK

9:00-9:45	Artikulazioa 1: Bertsoaritzaren eta rocka. <i>Alberto Irazu</i>
9:45-10:30	Artikulazioa 2: Bertsoaritzaren eta 90ko bertsolari gazteak. <i>Jon Maia</i>
10:30-11:15	Artikulazioa 3: Emakumeen presentzia egungo bertsoaritzan. <i>Oihana Iguaran</i>
11:15-11:45	Atsedenaldia
11:45-12:30	Artikulazioa 4: Bertsoaritzaren eta hiztun berriak. <i>Miren Artetxe</i>
12:30-13:30	Mahai-ingurua: Bertsoaritzaren artikulatzen; haizea alde eta kontra. <i>Oihana Iguaran, Miren Artetxe eta Jon Maia.</i> <i>Gidaria: Harkaitz Zubiri</i>
17:00-18:30	Komentatutako bertso-saio feminista: <i>Nerea Ibarzabal eta Miren Amuriza.</i> <i>Gidaria: Maite Berriozabal</i>



Miramar jauregian egingo dira Udako Ikastaroak, abuztuan. / XDZ

Ikasturtea agurtzeko 196 bertso jaialdi eskainiko dituzte gure ikasleek

Kantaldiak, topaketak eta besta egunak egongo dira apiriletik ekainera bitartean bertsojaritza eskaintzen den ikastetxe edo herrietan.

2018/2019 ikasturtea sartu zaigu azken txanpan. Aurten ere lan handia egin da bertsojaritza lau haizetara zabaltzeko: euskararen 7 lurraldeetan, 205 herritan, 469 ikastetxetan eta 26.366 ikaslerekin landu dugu hitzaren jolasa, Bertsozale Elkarteko 53 irakasleen eskutik.

Urtean zehar egindako lana oholtzaratzeko apiriletik ekainera bitartean formatu ezberdinetako jaialdiak eskainiko ditugu gurasoen, ikaskideen edota herritarren aurrean: kantaldiak, topaketak eta besta egunak. Ikasgela bakoitzak bere emandua prestatuko du: gehien gustatu zaizkien sortak, ikasleek jarritako bertsoak, antzerkiak zein bat-bateko saioak eskainiz. Emanaldi batzuetan musikariak, bertsolariak edo bertso-eskolatoko kideak izango dituzte lagun.

Herrialdez herrialde

Formatu desberdinetan baina herrialde guztietan izango dira jaialdi hauek.

Maiatzaren 25ean jokatu da Bizkaiko Taldekako finala, Abadiñon

21 talde eta 176 lagunek parte hartu dute aurtengo taldekakoan; hiru talde helduko dira hilaren 25ean jokatu den finalera.

Bizkaiko Taldekakoa amaierara heltzear dago. 21 taldek eman dute izena aurtengoan, eta 176 parte hartzaile izan dira, guztira. Otsailean hasi ziren kanporaketak jokatzeko, eta guztira, zazpi jokatu ziren otsailean eta martxoan. Zazpi talde heldu ziren finalaurrekoen fasera, eta udaberriko oporraldiaren ostean jokatu dira hiru finalaurrekoak. Horietatik, hiru talde sailkatu dira finalera, eta maiatzaren 25ean jokatu da, Abadiñon.

Arabian topaketak eskainiko dira Gorbeialdean, Lautadan, Amurrión eta Laudion. Bizkaiko ikastetxeetan 50 kantaldi eta herri edo eskualde mailako 18 topaketa egingo dira Mikel Inunziaga musikariaren laguntzarekin. Gipuzkoan herri mailako 82 jaialdi egingo dira, eta eskola txikiak dauden 13 herritan eskola jaialdiaren baitan egingo da tartea. Nafarroan ikastetxe zein herri mailako 22 jaialdi eta bertso besta eskainiko dira. Azkenik, Zuberoa, Lapurdi eta Baxenabarren Seaskako ikastolekin lau Bertsolari Tiki egun eskainiko dira Oskar Estangaren laguntzarekin eta ikastetxeetan beste hiru besta ere ospatuko dira.

Badago zertaz gozatua ikasturteari agur esateko. 34 urteko ibilbidea du ikastetxeen proiektu honek eta gero eta zabalagoa da.

Egun biribila izango da Abadiñon ospatuko dena. Goizean eskolarteko idatzizko eta bat-bateko finalak jokatu dira, eta bazkariaren ostean izango da taldekako finala, 17:00etan.

Bazkarirako txartelak www.bertsosarrerak.eus atarian daude eskuragai, 10 euroren truke.



Hiru talde heldu dira Bizkaiko Taldekako finalera. / XDZ



Puntu jarrita

MAIDER ARREGI MARKULETA

Galdera interesgarria da egin didazuna, Izarne, nola bizirauten duen batek plazan.

Zoritxarrez, uste dut txapelketek zerikusi handia dutela biziraupen horretan. Txapelketek markatzen dute bertsolaritzaren kanona, eta hor kabitzeak ala ez asko eragiten du bertsolariaren ibilbidean; bai kanpo-epaian, bai norberaren auto-pertzepzioan. Merezimenduaren kontua dago hor... Nork du bere burua bertsolari ontzat? Nork merezi du plazetan egotea? Orain arte txapelketen emaitzek erantzun dituzte galdera horiek.

Nik zortea izan nuen, eta azkenengo urtean irabazi nuen eskolartekoa. Horrela, gazte sariketetara zuzenean egin nuen salto, eta hortik Gipuzkoako txapelketara. Lehiaren bukle horretan, emaitza onak izaten nituenez, nolabait justifikatuta egon da nik plazan bizirautea, eta, orain arte, ez dut dudan jarri nire lekutxo, aprobazio hegemonikoa den txapelketak zilegitasuna eman didalako hor egoteko.

Dena dela, Gipuzkoako Txapelketa datorren honetan, bertigoa sentitzen dut, nire burua bertako emaitzen esku balego bezala. Bertso-mundutik bota nazaketela sentitzen dut "Ala, fuera! Hurrengoan entrenatu gehiago!". Eta horrek beldur pixka bat ematen dit.

Zorionez, bagabiltza bide kontra-hegemonikoak sortzen. Elkarrekiko lehiari beharrez, elkarrekiko miresmenean, enpatian, elkartasunean, maitasunean... ehuntzen ari direnak. Esateko eta esperimintatzeko gai eta modu berriak dakartzatenak. Elkarrekin bertsotan egiteko beste modu batzuk... Emakume bertsolarion sareaz ari naiz. Eta orain arte nola biziraun dudan badakidan moduan, badakit hemendik aurrera ez dudala biziraungo sare horren baitan ez bada.

Oihana Aranarentzat hurrengoa: Zuri zein sarek ematen dizu indarra bertsotan jarraitzeko?

Koplak

Bertso Mendi Topaketa egingo da mendizale eta bertsozale gazteentzat

16-20 urte bitarteko bertsozale eta mendizale gazteentzako irteera antolatuta du Bertsularien Lagunak elkarteak maiatzaren 31tik ekainaren 2ra. Egonaldia Iratiko txaletetan izango da. Bertso tailerrak, bertso afaria eta mendi itzuli bi izango dira, besteak beste. Gainera, Robert Larrandaburu gonbidatu berezia ere izango dute. Izena emateko aukera zabalik dago maiatzaren 25era arte bertsularien-lagunak@bertsozale.eus helbidera idatziz. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian.

Poto-Finixa



Begiraleak prest, udalekuei ekiteko!

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Jaso BertsoZalea berripapera digitalki

Paperaren erabilera murrizteko eta edozein momentutan sakelekoan irakurri ahal izateko BertsoZalea berripapera posta elektronikoz jaso nahiko bazenu, idatzi komunikazioa@bertsozale.eus helbidera eskaria eginez.



14 SORTZAILE JOLASEAN

Igor Elortza-Joseba Sarrionaindia
Uxue Alberdi-Danele Sarriugarte
Julio Soto-Gorka Urbizu
Nerea Ibarzabal- Eneko Sagardoy
Andoni Egaña-Ruper Ordorika
Onintza Enbeita- Maite Berriozabal
Manex Agirre- Ilaski Serrano